




# SL-Gi 1006

## Aitzondoko ur-jauzia

6,4 Km / 1 h 55 min

**NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA**

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

**RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES**

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.

## SL-Gi 1006

### Aitzondoko ur-jauzia

Ibilaldi honek meatzeen garaietara bueltatzeko aukera ematen digu: Irugurutzetako labeak, trenbidearen plano inklinatua eta meatzeak dira horren erakusle. Ibilbidearen bereizgarri moduan Aitzondoko ur-jauziaren ikuspegi paregabeaz gozatzeko aukera izango dugu.

Este recorrido nos hace retornar a los tiempos de la explotación de las minas de este zona. Los hornos de Irugurutzeta, los planos inclinados del antiguo tren y las propias minas son reflejo de esta actividad ancestral. Para culminar el recorrido podremos disfrutar de una vista inmejorable de la cascada de Aitzondo.




### Interes puntuak | Puntos de interés

**a**



IRUGURUTZETAKO LABEAK: Aiako Harrietako meatzeetan ustiatutako karbonatoa Irunen dauden Irugurutzetako labe hauetara garraiatzen zen tren edo kable bidez, bertan kiskalia izan zedin. Prozedura horren bitartez materialaren balioa handitzea lortzen zen. Erreketa egiteko, 30 kg ikatz gehitzen ziren karbonato tona bakoitzeko, eta tartekatutako geruzetan sartzen zuten labean.

HORNOS DE IRUGURUTZETA: El carbonato explotado en las minas de Aiako Harria se transportaba, bien en tren o bien por cable, a estos hornos de Irugutzeta en Irun para ser calcinado. Mediante ese procedimiento se lograba aumentar el valor del material. Para la combustión se añadían 30 kg. de carbón por cada tonelada de carbonato, cargando el horno en capas alternas.

**b**



MEATEGIETAKO TRENBIDE AZTARNAK: Aiako Harria Natura Parkean mendiko bi trenbide nagusi zeuden: Arditurrikoa eta Artikutzakoa. Irugurutzeta inguruan materiala bagonetetan garraiatzen zen. Labeetara iristeko plano inklinatu bat libratu behar zen. Horretarako, planoaren gaikaldean zilindro bat zegoen eta, bertatik kable bat bildu eta zabaltzen zen. Kable hori burdinbide gainean zihoazen bagonetei lotua zegoen eta, horri esker igo eta jaisten ziren.

RESTOS DEL FERROCARRIL MINERO: En el Parque Natural Aiako Harria había dos trenes principales: el de Arditurri y el de Artikutza. En la zona de Irugurutzeta el material se transportaba en vagonetas. Para llegar a los hornos había que salvar un plano inclinado. Para ello, en la zona superior del plano había un cilindro en el que se enrollaba y desenrollaba un cable. Dicho cable iba unido a las vagonetas situadas sobre unos railes que subían y bajaban gracias a él.

**c**



AITZONDOKO UR-JAUZIA: Ur-jauzia Ibarla errekaren ibilbidean dago eta, Irusta izenez ere ezagutzen da. Granitozko Azkain menditik 100metroz malkartzen da Gipuzkoako ur-jauzi altuenentzat jotzen den hau. Ur emaria ez da egonkorra urte osoan zehar eta, bere oparotasunean ikusteko une egokia aukeratu behar da. Zentzu horretan, Aiako Harria Natur Parkearen homologatutako ibilbideak erabiliz, ur-jauziaren ikuspegi desberdinez gozatu daiteke.

CASCADA DE AITZONDO: El salto de agua se halla en el curso del río Ibarla y también se lo conoce como Irusta. Esta catarata, que se considera la más alta de Gipuzkoa, se precipita 100 metros desde el monte granítico de Azkain. El caudal no es constante a lo largo del año y por ello se debe seleccionar bien el momento adecuado para verlo en todo su esplendor. En ese sentido, los senderos homologados de Aiako Harria permiten verlo desde diferentes perspectivas.

### Profila
Perfil




Luzera | Longitud
6,4 km

Desnibela | Desnivel
+138 m / -153 m

### MIDE

| Ingurunea<br>Medio | Ibilbidea<br>Itinerario | Desplazamendua<br>Desplazamiento | Ahalegina<br>Esfuerzo | MIDE ordutegia<br>Horario MIDE |
| --- | --- | --- | --- | --- |
| 1 | 2 | 2 | 2 | 1 h 55 min |
| **Inguruan arriskuak egon daitezke**<br>El medio no está exento de riesgos | **Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena**<br>Sendas o señalización que indica la continuidad | **Marcha por caminos de herradura**<br>Mandabideak | **1 eta 3 ordu arteko ibilaldi jarraia**<br>De 1 a 3 horas de marcha efectiva | (( 112 ))<br>SOS DEIAK |

+ info MIDE
www.mide.montanasegura.com

### Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena | Norabide aldaketa | Norabide okerra |
| --- | --- | --- |
| Continuidad de sendero | Cambio de dirección | Dirección errónea |

### + INFO

Praktika onen dekalogoa
Decálogo de buenas prácticas

www.gipuzkoanatura.eus
Trackak eskuragarri
Tracks disponibles

### Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

**Txakurrak beti lotuta eraman.**
Los perros deberán ir atados.

**Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
Intenta no ir nunca solo al monte.

**Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.**
Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.

**Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.**
No abandones ni entierres la basura.

**Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.**
No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.

**Animaliak larratzen**
Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

### Legenda
Leyenda

**Ibilbide hasiera**
Inicio de sendero

**Ikuspegi panoramikoa**
Vista panorámica

**Aisia-lekua**
Area recreativa


Ayuntamiento Irun Udala

Gipuzkoako Mendizale Federazioa